

ALKATEARI

Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, txakurren DNA errolda aplikatzeko proposamenari buruzkoa, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Espazio publikoetan elkarrekin bizitzeko, oinarrizko gizalege-arauak bete behar dira, osasungarritasuna, garbitasuna eta auzokideen arteko errespetua bermatzeko. Donostiarrek behin eta berriz aipatzen duten arazoetako bat da bide publikoan, parkeetan eta berdeguneetan txakur-gorotzak daudela. Horrek, eragozpenak eta arazo higieniko-sanitarioak sortzeaz gain, itxura txarra ematen dio hiriari.

Animaliak Babestu eta Edukitzeko Udal Ordenantzan horren inguruko betebeharrak xedatu diren arren, bai eta horren inguruan informazio-kanpainak egin ere, arazoak bere horretan dirau, hein handi batean oso zaila delako arauak betetzen ez dituzten jabeak identifikatzea.

Azken urteotan, udalerrri batzuetan txakurren identifikazio genetikoko sistemak ezarri dituzte nahitaezko mikrotxiparen tresna osagarri gisa, eta horri esker, animalia bakoitzari lotutako DNA errolda bat sortu dute. Horretarako, baimendutako albaitariak lagin biologiko bat hartzen dute, minik gabeko prozedura baten bidez (normalean ahoko isipu baten bidez). Laginaren bidez lortutako profil genetikoa animalien udal-erregistroari lotutako datu-base batean sartzen da. Bide publikoan gorotzik agertuz gero, udal-zerbitzuek lagin bat har dezakete, eta datu-base horrekin kontrastatu, hori egin duen animalia eta, hala badagokio, haren titularra identifikatzeko.

Gainera, Tres Cantos eta Alcalá de Henares udalerrietan garatutako esperientziek erakutsi dute sistema horrek beste arazo batzuei ere aurre egiten laguntzen duela, hala nola:

- identifikatzailea kenduta duten txakurrak abandonatzea edo lapurtzea;
- abandonatu daitezkeen umealdiak identifikatzea;

PP Talde Politikoa Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

- erregistratu gabeko animalien hozkadak edo erasoak identifikatzea; eta
- animalien udal-errodaren kudeaketa hobetzea.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio azter dezala Animaliak Babestu eta Edukitzeko Udal Ordenantza aldatzearen bideragarritasun tekniko, juridiko eta ekonomikoa, txakurren DNA bidezko identifikazio-sistema bat ezartzeko —nahitaezko mikrotxip-sistemaren tresna osagarri gisa—, eta, era berean, ebalua dezala neurri horrek bide-garbiketa, herritarren bizikidetzeta eta animalien ongizatea hobetzeko izango lukeen eragina.

Donostia, 2026ko otsailaren 20a

Borja Corominas Fisas

Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramailea